

PEDRO MAÑARIKUA^N

Franzizkotarra

Durango

Ibar orlegi, yori batean
Ibaizabal ta Durango;
Kondaira sustraitik, eten barik,
entzute ona izango.
Zure seme leial, jatorrak
ekarri onak emango:
zure Gurutze santu zainpean
zer ez izan ta esango?

Sorterrien alde

"Errien alde jokaturtea, jokabiderik onena", idatzi neban lenagoko idazlan baten. Egia esateko, gizarteak ez dau jokabide ori ondo bete, batez be, sorterrien izabide, izpide eta eskubideai buruz.

Sorterri oneen biotzetara urreratu bearrean, euren jatorrizko izakerea zintzoro eutsi-arazo, eta euren izkuntza onartu bearrean, buru belarri jokatu dogu geurea eurei sartzera, gure izkuntza, gure oiturak, etabar. Eta txarrena, "indartsu danak, itxura onez, aulagoa zapaltzea". Euskal Erriak badau, gai ontan, zer esanik.

Badira, zorionez, Eusko semeak eta ez gitxi gero, sorterrien alde ziñez ta zintzoki jokatu dabenak.

Fray Juan de Zumarraga, Durango-ko seme argia, Mexiko laterrian lenengo gotzaiña izanik, jaioterri ontako gazteentzat Santa Cruz ikastetxea egin eban, euren izkuntza ta jakinbidea zainduta biztuteko.

Fray Pedro Mañarikua, Peru'ko mixio bazterretan, egiñalak egiten ikusiko dogu emengo izkuntza ikasi eta euren artean bizi-eragiteko.

Nor dogu, ba, Pedro Mañarikua? Durango da bere jaioterria. (1876) Bere lenengo ikasteak Jesus'en Lagundiko ikastetxean egin zituan. Geroago Franzizkotarren bizibidea arturik apaiztu egin zan.

Buruaren argitasunari biotzaren garra jartzen badautzazu bereala sortuko dira gizandiak. Izan be giza-seme guztiok aurrerapidea artzeko, barruko zer bat, indar bero bat, mistika bizi bat bear dogu, gure bizitzari bultzada eraginkorra emoteko. Oso ongaria jaku barneko indar ori.

Nundik eta zelan artu eban aita Mañarikuak Mixio-

tera joateko grazia ta eragiña? Peru'ko Franzizkotar batengandik. Onexek goritu eban bere biotza. Eta ogeta sei urtedun zalarik Peru'ra etorri zan.

Bat egiñ

Aita Mañarikua'ren alde esan daikegun gorapenik txalogarriena auxe da: Emengo bizilagun guztiekin, euren izkuntza ta bizimoduakin BAT EGITEA.

Gaur egun mundu zabalera guztian izen ta entzute garratza dauan AYACUCHO errian auzotu zan eta emen bizi berrogeta bost urte buruan. Ayacuchotarra egin esan gogoz eta biotzez. Lurralde onetan basorik baso, bazterretatik bazterretara ibilliko da, bertan bizi diran lagunai Kristo gure Jaunaren grazia ta maitasuna oparo zabaltzen.

Aita Mañarikua ez da berekoia eta geldi egoteko mutilla. Beti dago prest guztiai laguntasuna eta eliz oparia eskeintzeko. Kezka bizi bat darabil bere baitan: euren izkuntza ez jakitea. Ori ikusirik gogo beroz ekingo dautso Quechua ikasteari. Eta bai ikasi be ondo baño obeto. Aurrerantzean Kristau ikasbidea eta itzaldiak Quechua izkuntzan egingo ditu. Modu ontan eta Jaunagandik datorkion ontasun eta beratasunagaz erriaren ederra irabaziko dau.

Erriari otoi bidean laguntzeko Quechua izkuntzan eliz-liburua argitaratu eban (1945).

Arrigarrizkoa da bere lanerako eta ikasterako garra. Ara emen agerbide batzuk: Ayacucho uriko ^gertakizun zaarrak eta goragarriak ikasirik, kondaira gaietan, mai-xu ospetsua izan zan. Jundako gizaldian Ayacucho eta eskualdean argitaratu ziran egunkari, aldizkari eta albistarien bilduma egiñik, erri jakintzari esan ezin alako mesedea egin eutson.

Kondaira gaietan berarizko maixutasuna izan eban, eta kultura lagunarte batzuetan bazkide argia izan. Aldizkarietan idaz-lan burutsuak argitu ez-ezik, erriko gertaldi aundietan itzaldi sakonak emon be bai. Bost dira berak kondairari buruz idatziriko liburuak.

Aita Mañarikua Ayacuchon il zan 82 urtedun zalarik (1958).

Durango'ko seme argiari omenik zintzoena.

Uriguren'tar Zenon